

Lau adingabe dituen familia bat etxegabetuko dute Txantrean

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 20/02/2024

Haritu elkarlaguntza sarea eta Jai Toki salatu dutenez Iruñeko Udalak ez die alternatiba duinik eskaini.

Haritu elkarlaguntza sarea eta Jai Toki jakinarazi dutenez Otsailaren 22an lau adingabe dituen familia bat etxegabetuko dute Txantrean, etxebizitzan 11 urte eman ondoren, eta hauek salatu dutenez Iruñeko familia langile hori kanporatua izango da inolako etxebizitza alternatibarik gabe. Etxejabeek bideratutako etxegabetze prozesua ostegunean amaituko da familiaren kaleratzearekin.

Familia osoak 1500 euroko soldatarekin egiten du aurrera hilero. Hala eta guztiz ere, Iruñeko Udalekon Etxebizitza Bulegoak 6 kideentzako hotel logela bakarra besterik ez du eskaini; denboraldi zehaztugaberako, sukaldarik gabe eta adingabeek eskolatzea normaltasunez jarraitzeko aukerarik gabe, Udal etxebizitzaren zerbitzuarekin izandako bileran familiari alokairu merkatuan etxebizitza edota logela bat bilatzeko iradokizuna egin zitzaien, kontuan hartu gabe zein egoeratan aurkitzen den gaur egun alokairuaren merkatua hirian egoera latzean utziz.

Etxetik kanporatzeko prozesuak iraun duen bi urte hauetan kideak aurkitu dituen etxejabeek ez diote etxebizitzarik alokatu nahi izan familia ugaria izateagatik, soldata bakarra izateagatik edota atzerritar jatorrikoak izateagatik. Era berean Apirillean, lau seme-alaba dituen beste familia bat bere etxebizitzatik kanporatua izango dela Arrosadian jakinarazi du Harituk.

Elkarlaguntza sareak salatu duenez jabetza pribatuaren zentraltasunak eta etxebizitzaren berrantolaketa kolektiboaren faltak berdintasun ezaberagiten dute. Etxebizitzak ezin du errentagarritasun logikaren arabera izan. Jabeen interes pribatuak ezin dira etxebizitzaren auziaren erdigunean egon; maizterrenak, berriz, bai. Hori dela eta, etxebizitza eskuratzeko moduen birmoldaketa integrala eta familiarentzako etxebizitza alternatiba duina eskatu dute, bai eta etxegabetze guztiak geldiaraztea ere.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/lau-adingabe-dituen-familia-bat